

# Liburuak

## KRITIKA

Zer da ba, maitasuna?

Miren Agur Meabe. (Irudiak: Concetta Probanza).  
Elkar. 156 orrialde. 13,20 euro.

Helduen literatura

Amalia Alvarez Uria



## Zazpi beloen dantza

AZALETIK IRAKURTZEN BADUGU liburu hau, nerabeen arteko maitasun istorio bat topatuko dugu. Hasierako maitemintzeak dakartzan zalantza eta irrikak agertzen zaizkigu bi protagonisten egunerokoetan. Baina kanpoko azala kentzen badugu eta barrukoena bila hasten bagara askoz gehiago kontatuko digu testu honek, zazpi beloen dantzaz bezala.

Bigarren beloen konturatuko gara liburuaren azalean agertzen zaigun galderari erantzuten zaiola, alde ugari dituen gai honi hamaika definizio emanez. Hirugarren beloa erakutsiko digu ez dela hasieratik amaierara jarraian irakurri behar: protagonista batek liburuaren erdi bat eta besteak beste erdia daukatelako euren testigantzak papereratzeko, istorio beraren bi bertsio kontatzeko. Gainera testuari ilustrazioek lagunduko diote bi egileen lana uztartuz eta arte desberdinak batuz.

Honek laugarren belora garamatza, lan honetan barna, literaturari buruzko aipuez gain musika eta margolanak ere agertzen direlako: Silvio, Chagall eta Li Po dira aipatuenak. Bosgarren beloa ere sorkuntza lanei keinuka ari da, baina oraingoan euskaraz idatzitako eta emakumeek egindako lanei begira jartzen da tradizio hauei bere ekarpena aitortuz.

Seigarren beloen bi estilo ditugu aukeran, bizitzari eta maitasunari poetikoki ala ironikoki begiratzeko moduak. Honen atzean kritika soziala dago, ikuspegi lokala eta globala dakartzana: gure protagonistak pribilegiatuak direla ondorioztatzen da honekin, jaio diren leku eta baldintzei erreparatzen diegunean. Zazpigarrenean, azkenik, lan honek dakarren mezua –edo mezueta bat– dago: maitasuna da bizitzeko eta komunikatzeko motorra.

Protagonistetako batek bere burua deskribatzeko hurrengo dio: Lehen kategoriako zibilizatu eskolatua. Agian hau da gutxien ase gaituena. Betiko pertsonaiek betiko istorioa kontatzen dutela. Bestelako errealitateak, bestelako pertsonaiek eta bestelako maitasun istorioak kanpoan geratu direla, beste behin. Hala ere, asko eskertzen da errealismoa eta fantasia elkartu nahia, lan berean bietatik jasotzeko aukera. Lirika eta epikaren elkarbizitza orriotan.

Zazpi beloen dantzarekin gerta daitekeena da hainbeste azalen artean korapilatzea, baina horrek berak ematen dio xarma eta aberastasuna lan honi. Palinpsestoa egin digute bi esku hauek, irudiak hitzetan eta hitzak irudietan ekarriz. Zabalitzen dituzten ateetatik sartzeko gonbitea luzatzen dizuegu. Hasteko Silvio Rodriguezen *Kapeladun emakumearen olio*a kantua entzun eta zabal ezazue lehen beloa. ■

## Adopzio baten istorioa kontatu du Etxaniz Rojok

Seme-alaba guztiak ez dira sabeletik jaiotzen: batzuk bai, baina besteak bihotzetik jaiotzen dira. Hori esaten da adopzioaren munduan, genetikari garrantzi handiegia ematen diotenei erantzuteko. Erantzun horri segida eman nahi izan dio Xabier Etxaniz Rojok *Ekialdetik iritsi zen Enara* liburuan. Ez da nazioarte-

ko adopzio bat egiteko gida; ez da adopzioaren aldeko panfleto bat; Etxaniz Rojok dio ez duela inor konbentzitu behar, bere istorioa kontatu nahi duela, ez besterik. Eta berea Txinan gauzatutako adopzio baten kontakizuna da. Nola erabaki zuten, zergatik, adoptatzeko izan zituzten zailtasunak... Trintxerpeko idazleak lan pertsonal bezain interesgarria osatu du. ■



Ekialdetik iritsi zen Enara.

Xabier Etxaniz Rojo.

Alberdania.

187 orrialde.

14 euro.

## Kelillo-ren poema kritiko eta errebeldeak

Poesia liburu da *Doru de tara mea* (ene herriaren oroimen). Kelillo idazleak publikatu du, Zapateneko kultur elkartearen laguntzarekin. Aurkezpen ikusgarria egin diote liburuari, zuri-beltzeko ilustrazio eta marrazki ugari hornitu dute, eta erabilitako tipografia –eskuzko idazkeraren antza du– bikain lotzen zaio poetaren estiloari: gizarteari kritika zorrotza egin dio Kelillok liburuan. “Txustarra baten esperoan” hasiko digu liburu; “A.M.-ko pentsamendu ilun horiek” irakurriko ditugu ondoren; “Adokin zaharrek berba egin ezker” zer esango luketen galdetuko diogu gure buruari; eta bukaeran sententzia: “Goma errearen usaina dario kalerari”. ■



Doru de tara mea.

Kelillo.

Zapateneko.

67 orrialde.

3,12 euro.